

BERRIA (2006-02-28)

Animazioaren mundu magikoan barrena

Xabier Martin – DONOSTIA. Animaziozko zinema sendo dago Euskal Herrian, zinemako alor horretan azken urteetan izan diren ekoizpenek erakusten duten moduan. Animazioaren inguruan sortu den interesari erantzute aldera, Animatoon 2006 antolatu dute Donostia Kulturak eta Toon Toon Media elkarteak. Horren barruan, animazioa oinarri hartuta, erakusketak, hitzaldiak, film emanaldiak eta tailerrak izango dira urte osoan Donostian.

Martxoaren hasieratik maiatzaren bukaera arte hiru erakusketa paratuko dituzte Donostiako Udal Liburutegian, asmo didaktiko argiarekin. Gisaku filmari buruzkoa izango da lehenengo erakusketa, martxoaren 1etik 28ra. Espainiako ekoizpen horren inguruko erakusketa, animaziozko film luze baten sorkuntzaz ariko da, 2D motako lana dela kontuan hartuta. Japoniako manga komikitik eratorritako anime alorrekoa da Gisaku, gure zinematokietan oraindik estreinatu gabeko lana. Mendeak iraun duen loalditik iratzartzen den samurai baten istorioa kontatzen du lanak. Iberiako penintsulako hainbat hiritan ibiliko da samurai hori, tartean Bilbon. Martxoaren 31tik apirilaren 22ra Donkey Xote filmari buruzko erakusketa jarriko dute, animaziozko film luze baten sortze prozesua azaltze aldera. Donkey Xote-ren bidez, 3D motako animazioa nola egiten den argitzea da erakusketaren xedea. Teknika hori da erabiliena egungo animazioan. Apirilaren 28tik maiatzaren 27ra, Tim Burtonen Corpse Bride laneko pertsonaien sorkuntzari buruzkoa jarriko dute. Stock motion teknika erakutsiko dute Corpse Bride-ren bidez, pertsonaiak modelatu ondoren, fotogramaz fotograma grabatzen duen teknika. Proiektzio batek lagunduko du erakusketa.

Tailerrak eta zinema emanaldiak

Animatoon egitarauaren irakaskuntza xedeari jarraiki, haurrentzako tailerrak prestatuko dituzte, proiektuaren zuzendari Ricardo Ramonek atzo azaldu zuenez. Kultur etxeetan eta ikastoletan egiteko izango dira, txikienak animaziora gertura daitezen. Donostian bakarrik ez, baina inguruko beste hiri eta herritan ere izango da tailerrok egitea. Hala, otsailean Miarritzen izan dira dagoeneko, eta ekaina eta uztaila aldera ere, lotuta daude beste batzuk, Gipuzkoan bertan eta Gasteizen.

Zinema emanaldiak abenduaren 8, 9 eta 10ean izango dira, Donostian. Haurrentzako filmak goizean emango dituzte, eta ilunabar aldera hiru zinema maratoi prestatuko dituzte helduentzat. Filmak zehaztu gabe daude, baina litekeena da AEBetako zinema ematea. Gainera, apirilaren 27an, Tim Burtonen Corpse Bride emango dute Antzoki Zaharrean, gaztelaniaz. Bestalde, Akitania eta EAeren barruan egindako animaziozko ekoizpenen datu base bat sortzen ari da Toon Toon Media elkarteak; www.animatoon.org webgunean ikusi ahal izango da aurten.